# Bestelako Xedapenak

## EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

**2017**

AGINDUA, 2010eko martxoaren 12koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Aurreikuspen Sozial Osagarrirako prestakuntza aurreraturako laguntzen deialdia arautzen duena.

Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeen jarduera jakin batzuk arautzeko den maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoa betetzeko, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako gobernu-batzordeetako kideek aurreikuspen sozialaren arloan duten prestakuntzari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2008ko abenduaren 3ko Agindua argitaratu zen.

Arau horietan ezarritako araubidearekin bat etorrita, abenduaren 3ko agindu horren azken xedapenetako bigarrenak zioen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak urtero egin ahal izango zuela aurreikuspen sozialeko prestakuntzarako laguntzen deialdia.

Gaur egun Ekonomia eta Ogasun Sailari dagozkio eskumen horiek, horixe baitago ezarrita Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan –dekretu horretako 8.f) artikuluan sail horri esleitzen baitzaizkio aurreikuspen sozialeko erakundeei buruzko jarduera-arloak– eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuan.

Oinarrizko prestakuntza eman ondoren eta Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako gobernu-organoen trebakuntza eta prestakuntza aurreratuan laguntzearren (erakundearen zuzendaritza eraginkorra eragin eta, era berean, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakunde horietako pertsonen eskubideak gehiago bermatzea ekarriko duena), egokitzat jo da lehentasunezko interesa duten ikastaro aurreratuetarako honako laguntza hauen deialdia egin eta arautzea.

Horregatik, honakoa

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Agindu honen xedea da Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeei aurreikuspen sozialerako

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

**2017**

ORDEN de 12 de marzo de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda, por la que se regula la convocatoria de ayudas para la formación avanzada en Previsión Social Complementaria.

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 2 del Decreto 92/2007, de 29 de mayo, por el que se regula el ejercicio de determinadas actividades de las Entidades de Previsión Social Voluntaria, se publicó la Orden, de 3 de diciembre de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, sobre formación en previsión social de los miembros de las Juntas de Gobierno de las Entidades de Previsión Social Voluntaria.

De conformidad con la regulación establecida en esas normas, la disposición final segunda de la referida Orden de 3 de diciembre preveía que, con carácter anual, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social podría realizar la convocatoria de ayudas para la formación en previsión social.

En la actualidad, esas competencias le corresponden al Departamento de Economía y Hacienda de conformidad con el Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, que, en su artículo 8.f), atribuye a ese Departamento las funciones y áreas de actuación correspondientes a las Entidades de previsión social, así como con el Decreto 568/2009, de 20 de octubre, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Economía y Hacienda.

Impartida ya la formación básica y con el fin de coadyuvar a la cualificación y formación avanzada de los Órganos de Gobierno de las Entidades de Previsión Social Voluntaria, lo cual redundará en una dirección eficiente de la Entidad que, a su vez, comportará una superior garantía de los derechos de las personas integrantes de estas Entidades de Previsión Social Voluntaria, se considera oportuno convocar y regular las siguientes ayudas para los cursos avanzados de interés preferente.

En su virtud,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

El objeto de esta Orden es regular, para este ejercicio 2010, las bases de la convocatoria de las ayu-

ikastaro aurreratuak egiteko (2010. urtean eta eskaeraren aurretik emandako ikastaroetarako) eman zaizkien laguntzen deialdirako oinarriak arautzea 2010eko ekitaldi honetarako. Gobernu-batzordeetako kideen edo atxikitako langileen prestakuntza-eskaria sustatu eta jakintzak sakontzea bultzatzearren, Ekonomia eta Ogasun Sailak, diru-laguntzen bidez, lehentasunezko interesa duten ikastaro aurreratuen kostua finantzatuko du.

***2. artikulua.***– Diruz lagun daitezkeen jarduera eta modalitateak.

Jarraian zehaztutako irizpideak betetzen dituzten prestakuntza-jarduerek –aurrez aurreko ikastaroak eta on line ikastaroak– jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak:

1.– Aurrez aurreko prestakuntzarako irizpideak:

a) Baimendutako erakundeek emandako prestakuntza baino ezin izango da diruz lagundu, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako gobernu-batzordeetako kideek aurreikuspen sozialaren arloan duten prestakuntzari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2008ko abenduaren 3ko Aginduaren 4. artikuluko irizpideen arabera.

b) 300 eurora arteko diru-laguntza ezarri da aldez aurretik homologatutako ikastaroa egingo duen pertsona bakoitzeko.

c) Baimendutako instantziak emandako modulu aurreratuaren ikastaroak gutxienez 20 ordukoak izango dira, eta bakoitza 4 ordu iraungo duten 5 saiotan banatuko da.

d) Ikastaroa amaitzean, ikastaroa eman duen erakundeak aprobetxamendua ziurtatu beharko du.

2.– On line prestakuntzarako irizpideak:

a) Baimendutako erakundeek emandako prestakuntza baino ezin izango da diruz lagundu, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako gobernu-batzordeetako kideek aurreikuspen sozialaren arloan duten prestakuntzari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2008ko abenduaren 3ko Aginduaren 4. artikuluko irizpideen arabera.

b) Ikastaroaren iraupena aurrez aurreko ikastaroen antzekoa izango da eta sei hilabeteko epea ezarriko da gehienez ikastaroa egiteko.

c) 300 eurora arteko diru-laguntza ezarri da aldez aurretik homologatutako on line ikastaroa egingo duen pertsona bakoitzeko.

d) Ikastaroa amaitzean, ikastaroa eman duen erakundeak aprobetxamendua ziurtatu beharko du.

e) Ikastaro berak inola ere ez du diru-laguntza bide desberdinetatik jasoko.

3.– Ikastaro bakar baten gastuetarako emango da diru-laguntza pertsona bakoitzeko, on line edo aurrez aurrekoa izan.

das a conceder a las Entidades de Previsión Social Voluntaria para la realización de cursos avanzados de formación en previsión social impartidos durante el año 2010 y con anterioridad a la solicitud. Al objeto de fomentar la demanda formativa e incentivar la profundización de conocimientos por parte de las personas que componen sus Juntas de Gobierno o personal adscrito, el Departamento de Economía y Hacienda financiará, mediante subvenciones, el coste de los cursos avanzados de interés preferente.

***Artículo 2.***– Actuaciones y modalidades subvencionables.

Serán objeto de ayuda económica las actividades formativas, presenciales y on-line, que cumplan los criterios que se detallan a continuación:

1.– Criterios para la formación presencial:

a) Únicamente podrá ser subvencionada la formación impartida por entidad autorizada, según los criterios del artículo 4 de la Orden de 3 de diciembre de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, sobre formación en previsión social de los miembros de las Juntas de Gobierno de las Entidades de Previsión Social Voluntaria.

b) Se establece una subvención de hasta 300 euros por persona que realice un curso previamente homologado.

c) Los cursos del módulo avanzado, impartidos por instancia autorizada, constarán de un mínimo de 20 horas, repartidas en un mínimo de cinco sesiones de cuatro horas de duración cada una.

d) Al finalizar el curso se deberá certificar el aprovechamiento por la Entidad que lo imparta.

2.– Criterios para la formación on-line:

a) Únicamente podrá ser subvencionada la formación impartida por entidad autorizada, según los criterios del artículo 4 de la Orden de 3 de diciembre de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, sobre formación en previsión social de los miembros de las Juntas de Gobierno de las Entidades de Previsión Social Voluntaria

b) La duración del mismo será similar a la del curso presencial y se establecerá un plazo máximo de hasta seis meses para su realización.

c) Se establece una subvención de hasta 300 euros por persona que realice un curso on line previamente homologado.

d) Al finalizar el curso se deberá certificar el aprovechamiento por la Entidad que lo imparta.

e) En ningún caso el mismo curso podrá ser subvencionado por vías diferentes.

3.– Sólo se subvencionarán los gastos correspondientes a un único curso, se haya impartido on line o haya sido presencial, por persona.

***3. artikulua.***– Erakunde onuradunak.

Deialdian azaldu diren laguntzak eskuratu ahal izango dituzte haien Gobernu Batzordeko kideek edo atxikitako langileek aurreko artikuluan aipatutako ikastaro aurreratuak egin edo ikastarootara joan izana ordaindu duten Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeak, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako gobernu-batzordeetako kideek aurreikuspen sozialaren arloan duten prestakuntzari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2008ko abenduaren 3ko Aginduan ezarritakoaren arabera.

***4. artikulua.***– Diru-laguntzak ordaintzeko modua eta adjudikatzeko prozedura.

Emandako dokumentazioa aztertu eta onetsi ondoren ordainduko dira diru-laguntzak, laguntza onartu ostean, ordainketa bakarrean, Agindu honen 2. artikuluan adierazitako zenbatekoetan eta urtero ezarritako aurrekontu-mugaren barruan.

Deialdi hau ebazteko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen testu bateginaren araberako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 51.5 eta 6 artikuluan xedatutakoa beteko da. Horrela bada, eskaerak oro har aztertuko dira eta gordailatutako kreditua ez balitz nahikoa izango guztiak betetzeko, horretarako gordailatutako zenbatekoa proportzionalki banatuko da agindu honetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien artean.

***5. artikulua.***– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan arautitako diru-laguntzak bateragarriak dira arrazoi eta xede beragatik bestelako administrazioek edo erakunde publikoek emango dituzten bestelako laguntzekin. Nolanahi ere, diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostu osoa baino handiagoa, ezta agindu honetako 2. artikuluan aurreikusitako gehienezko zenbatekoa baino gehiagokoa ere.

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak eta erakunde onuradunak beste administrazio edo erakunde publiko batzuetatik arrazoi eta xede berarengatik jasotzen dituen bestelako laguntzak pilatzen badira, eta diru-laguntza horien baturak laguntza-gai den jardueraren kostua edo agindu honetako 2. artikuluan aurreikusitako gehienezko zenbatekoa gainditzen badu, orduan gaindikin horren bateraezintasuna deklaratuko da eta, ondorioz, murriztu egingo da Ekonomia eta Ogasun Sailak eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa.

***6. artikulua.***– Eskaerak aurkeztea.

1.– Diru-laguntzen eskaerak idazki normalizatuan egin beharko dira, agindu honen eranskinean azaldu den ereduaren arabera. Eredu hori Finantza Zuzendaritzan hartu ahal izango da, edo zuzendaritza horri esleitutako Internet helbidean deskargatu. Aipatutako

***Artículo 3.***– Entidades beneficiarias.

Podrán acceder a las ayudas objeto de convocatoria, las Entidades de Previsión Social Voluntaria que sufraguen la asistencia o realización de los cursos avanzados a que se refiere el artículo anterior, por miembros de sus órganos de gobierno, o personal adscrito, de acuerdo con lo establecido en la Orden de 3 de diciembre de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, sobre formación en previsión social de los miembros de las Juntas de Gobierno de las Entidades de Previsión Social Voluntaria.

***Artículo 4.***– Forma de pago y procedimiento de adjudicación de las subvenciones.

Las subvenciones, que serán de pago único, se abonarán, tras el análisis y aprobación de la documentación aportada, una vez aceptada la ayuda, por los importes señalados en el artículo 2 de esta Orden hasta el límite presupuestario señalado anualmente.

La presente convocatoria se resolverá atendiendo a lo dispuesto en el artículo 51.5 y 6 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, según texto refundido aprobado por DL 1/1997, de 11 de noviembre, de forma que las solicitudes se examinarán en su conjunto y si el crédito consignado no fuera suficiente para atender a todas ellas, se prorrateará la cantidad existente consignada a este fin, entre todas las solicitudes recibidas que cumplan con los requisitos en la presente Orden.

***Artículo 5.***– Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

1.– Las subvenciones reguladas en la presente Orden son compatibles con aquellas otras que, con el mismo objeto y finalidad, pudieran ser otorgadas por cualesquiera otras Administraciones o entes públicos. En cualquier caso, el importe de las subvenciones no podrá superar el coste total de la actividad objeto de subvención, ni el importe máximo previsto en el artículo 2 de esta Orden.

2.– Cuando las ayudas previstas en la presente Orden concurran con cualesquiera otras que, por el mismo motivo y finalidad, perciba la entidad beneficiaria de otras Administraciones o entes públicos, si la suma de las mismas superase el coste total de la actividad objeto de subvención o el importe máximo previsto en el artículo 2 de esta Orden, se declarará la incompatibilidad de dicho exceso, reduciéndose el importe de la ayuda a conceder por el Departamento de Economía y Hacienda.

***Artículo 6.***– Presentación de solicitudes.

1.– Las solicitudes de subvención deberán formularse en instancia normalizada, según modelo que se acompaña como anexo a la presente Orden y que será facilitado en la Dirección de Finanzas o que podrá descargarse en la dirección de Internet asignada

eskaerak Eusko Jaurlaritzaren Finantza Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) aurkeztu beharko dira, zuzenean zein Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako gainerako bideak erabiliz.

2.– Bost hilabeteko epea egongo da eskaerak egiteko, agindu hau argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

3.– Erakunde onuradunek laguntzen eskaerak aurkeztean egiaztatu beharko dute baldintza guztiak betetzen dituztela.

4.– Laguntza jasotzeko eskaera eta horrekin batera doan beharrezko dokumentazioa nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira. Era berean, laguntza lortzeko eskaeraren ondoriozko jardueretan, eta prozedura osoan, pertsona edo erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

***7. artikulua.***– Nahitaezko dokumentazioa.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskaerekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Laguntza eskatu duen Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundearen identifikazioa.

b) Ikastaroa egin duten lagunen kopurua, ikastaroaren data eta euren aprobetxamendu-maila zehaztuko duen memoria zehatza, gobernu-batzordeetako kideak direnak zehaztuz.

c) Diruz lagundu beharreko guztizko zenbatekoaren justifikazio-dokumentazioa, jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztuta.

d) Emandako ikastaroaren material didaktikoa.

e) Bertaratu diren lagunek prestakuntza-jardueraren inguruan betetako balorazio-inkesta (2. eranskina).

f) Interesatutako hirugarrenaren datuen altaren fitxa, erakunde eskatzaileak eta haren bankuak izenpetuta eta zigilatuta.

g) Erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak beteta dauzkala egiaztatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiri gaurkotua. Ziurtagiriaren ordez, ziurtagiria eskatu izana adieraz daiteke behar bezala zigilatutako idazki baten bidez, baina idazki horrek eskaera aurkezteko baino ez du balioko.

Zor bat atzeratzea lortzen duen erakundeak ordainketak eguneratuta dauzkala hartuko da, baina agirien bidez egiaztatu beharko du hori guztia.

a esa Dirección. Dichas solicitudes se presentarán ante la Dirección de Finanzas del Gobierno Vasco (c/ Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), bien directamente o a través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Las solicitudes podrán formularse en el plazo de cinco meses, a computar desde el día siguiente a la publicación de la presente Orden.

3.– El cumplimiento por parte de las entidades beneficiarias de los requisitos establecidos debe acreditarse en el momento de la presentación de la solicitud de ayudas.

4.– Se podrán presentar la solicitud de ayuda, junto con la documentación necesaria que se acompañe, en el idioma oficial de su elección. Así mismo, en las actuaciones derivadas de la solicitud de ayuda, y durante todo el procedimiento, se utilizará el idioma elegido por la persona o entidad solicitante, tal y como establecen los artículos 5.2.a) y 6.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización de uso del Euskera.

***Artículo 7.***– Documentación preceptiva.

Las solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en la presente Orden deberán acompañarse de la siguiente documentación:

a) Identificación de la Entidad de Previsión Social Voluntaria solicitante de la ayuda.

b) Memoria detallada en la que se especificará el número de personas que han realizado el curso, la fecha en que lo han realizado y su grado de aprovechamiento, especificando las personas que son miembros de las Juntas de Gobierno.

c) Documentación justificativa de la totalidad de la cantidad a subvencionar mediante la aportación de facturas originales o fotocopias compulsadas.

d) Material didáctico del curso impartido.

e) Cumplimentación de la encuesta de valoración de la actividad formativa por parte de las personas asistentes a la misma (anexo 2).

f) Ficha de Alta de Datos de Tercero/a Interesado/a firmada y sellada por la entidad solicitante y por la entidad bancaria correspondiente.

g) Certificado actualizado de la Hacienda Foral correspondiente que acredite que la entidad solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias. Únicamente a los efectos de presentación de la solicitud podrá sustituirse por el escrito, debidamente sellado, de haber solicitado la certificación.

Se entenderá en situación regular de pagos la entidad que hubiere obtenido un aplazamiento y lo acredite documentalmente respecto a la deuda aplazada.

h) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren edo dagokion erakundearen egiaztagiri gaurkotua, aurreko atalean adierazitakoaren ildotik.

i) Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, administrazio honi nahiz beste administrazio edo erakunde publiko batzuei xede eta helburu berarako eskatutako beste edozein laguntza zein egoeratan dagoen (eskatuta, emanda nahiz izapideak egiten) jakinarazteko.

j) Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako –eta izaera bereko diren– laguntza eta diru-laguntza publikoak itzultzeko prozedurei nahiz zigor-prozedurei buruz, prozedura horiek oraindik izapidealdian badaude, behintzat.

k) Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigor- eta administrazio-arloan zigortuta ez dagoela eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez dagoela adierazita, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

l) Diru-laguntzen zertarakoa eta aplikazioa ziurtatu beharko da konpromisozko bermeen bidez, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

m) Interesgarritzat hartutako beste edozein agiri.

***9. artikulua.***– Eskaeraren akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzen eskaerak oso-osorik betetzen ez badira edo nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioarekin aurkezten ez badira, agindeia egingo zaio erakunde eskatzaileari, hamar eguneko epean akatsa zuzen dezan edo falta diren agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio agindutakoa bete ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela. Kasu horretan, administrazioak eskaerari buruzko beren-beregiko ebazpena eman beharko du, baita jakinarazi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

***10. artikulua.***– Kudeaketa, ebazpena, errekurtsoak eta publizitate-prozedura.

1.– Finantza Zuzendaritza izango da agindu honetan arautzen diren diru-laguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

h) Certificado actualizado de la Tesorería General de la Seguridad Social o de la entidad correspondiente en términos semejantes a lo previsto en el apartado anterior.

i) Declaración jurada de la entidad solicitante en la que se haga constar la situación en que se encuentre (solicitada, concedida o en trámite), cualquier otra ayuda que para el mismo objeto y finalidad se haya solicitado a ésta u otras Administraciones Públicas o entes públicos.

j) Declaración jurada de la entidad solicitante relativa a los procedimientos de reintegro o sancionadores que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se hallen aún en tramitación.

k) Declaración jurada de la entidad solicitante de no estar sancionada penal ni administrativamente, con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

l) Garantizar el destino y aplicación de las ayudas mediante garantías relacionales, conforme a lo previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.

m) Cuantos otros documentos pudieran considerarse de interés.

***Artículo 9.***– Subsanación de los defectos de la solicitud.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no fueran acompañadas de la documentación preceptiva, se requerirá a la entidad solicitante para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 10.***– Gestión, resolución, recursos y procedimiento de publicidad.

1.– El órgano competente para la gestión de las subvenciones reguladas en la presente Orden será la Dirección de Finanzas.

2.– Finantzetako zuzendariak beren-beregi emandako ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak.

Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaitzen eta, ondorioz, gora jotzeko errekurtsoa ipini ahal izango zaio Ogasun eta Finantzetako sailburuordeari. Hilabeteko epea egongo da horretarako, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

3.– Agindu honen babesean egindako eskaerei buruzko beren-beregiko ebazpena eman eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez, agindua EHAAn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan beren-beregiko ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, eskaerak onartu ez direla ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, baina horrek ez dio kalterik eragingo administrazioak beren-beregiko ebazpena emateko duen beharrari.

4.– Publizitate-printzipioa betetzeko, Finantzetako zuzendariaren ebazpenaren bitartez, xedapen honen babesean emandako diru-laguntzen onuradun izan diren erakundeen zerrenda (jasotako zenbatekoak adierazita) eta emandako diru-laguntzak aldatu zaizkien erakundeen zerrenda argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Nolanahi ere, diru-laguntza emateari buruzko ebazpena beren-beregi eta banan-banan ere jakinaraziko da.

***11. artikulua.***– Diru-baliabideak eta laguntzen muga.

Agindu honen helburua betetzeko, gehienez 19.800 euroko kopurua erabiliko da 2010. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako zenbatekotik. Adierazitako zenbateko orokorra handitu ahal izango da, betiere diru-laguntzak adjudikatzeko prozedura ebatzi aurretik, eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan izanik eta ondokoen arabera: dagoen aurrekontu-lotura, Ekonomia eta Ogasun Sailaren beste programen betearazpenetik sortzen diren aurrekontu-aukerak edo onartzen diren beste aurrekontu-aldaketak. Halakorik gertatuz gero, Ogasun eta Finantzetako sailburuordearen ebazpenaren bidez emango da horren berri.

***12. artikulua.***– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntzaren helburua betetzat hartu delarik, diru-laguntza hori emateko kontuan izandako baldintzak aldatuz gero eta erakunde honek nahiz

2.– La concesión y la denegación de las subvenciones previstas en esta Orden se realizará mediante resolución expresa del Director de Finanzas.

Dicha resolución no agota la vía administrativa y contra ella cabe interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Hacienda y Finanzas en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente a aquél en que tenga lugar la notificación, conforme a lo dispuesto en los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo máximo para dictar y notificar resolución expresa sobre las solicitudes presentadas al amparo de esta Orden será de seis meses a contar desde la publicación de la Orden en el BOPV. Transcurrido dicho plazo sin que se haya dictado y notificado resolución expresa, las solicitudes se podrán entender desestimadas a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver expresamente.

4.– A fin de dar cumplimiento al principio de publicidad, y sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de la resolución de concesión, mediante resolución del Director de Finanzas se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de las Entidades que hayan resultado beneficiarias de las subvenciones concedidas al amparo de la presente disposición, con expresión de las cuantías percibidas, así como la de aquéllas respecto de las que se haya procedido a modificar la subvención concedida.

***Artículo 11.***– Recursos económicos y límite en la concesión.

A los efectos del cumplimiento del objeto de esta Orden se destinará para el año 2010 un total máximo de 19.800 euros de los previstos en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El importe global expresado podrá ser incrementado, siempre con anterioridad a la resolución del procedimiento de adjudicación de las subvenciones, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas y en función de la vinculación presupuestaria existente, de las disponibilidades presupuestarias que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Economía y Hacienda o de la aprobación de otras modificaciones presupuestarias. De producirse dicha circunstancia se dará publicidad de la misma mediante Resolución del Viceconsejero de Hacienda y Finanzas.

***Artículo 12.***– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su

beste edozein administrazio publikok emandako diru-laguntzak pilatuz gero, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, Ogasun eta Finantza Sailburuordetzak aldaketa egiteko ebazpena emango du. Ebazpen horren bidez, emandako diru-laguntzen zenbatekoak egokituko dira, eta erakunde onuradunek soberakinak itzuli beharko dituzte.

***13. artikulua.***– Arauak ez betetzea eta erantzukizunak.

Diru-laguntzaren erakunde onuraduna Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan ezarritako kasuetako batean egonez gero, edo agindu honetan eta aplika daitezkeen gainerako arauetan, eta diru-laguntza ematearen aldeko ebazpenean ezarritako arauren bat bete gabe utziz gero, Finantzetako zuzendariak, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoa betez, ebazpen bat emango du, eta, ebazpen horren bidez, honako hau deklaratuko du: erakunde onuradunak ordaintzea falta ziren kopuruak jasotzeko eskubidea galdu duela, eta, hala behar izanez gero, ordura arte jasotako diru-kopuruak eta diru-laguntza ordaindutako unetik aurrera sortutako legezko interesak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusira itzuli beharra daukala, bidezko beste ekintza batzuk aparte utzi gabe. Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira dagozkien legezko ondorioetarako, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan aurreikusitakoa izango da erantzukizunen araubidea.

***14. artikulua.***– Itzultzeko prozedura.

Aurreko artikuluan aurreikusitako arauak betetzen ez badira, honako hau izango da jasotako diru-laguntzak itzultzeko prozedura:

a) Finantzetako zuzendariak ebazpena egingo du eta, horren bidez, dirua itzultzeko prozedura hasi dela eta prozedura hori zergatik hasi den jakinaraziko dio erakunde onuradunari. Horrela, 15 eguneko epea emango dio bidezko iritzitako alegazioak egin ditzan.

b) Alegazioak jaso ondoren edota epe hori alegaziorik aurkeztu gabe igaroz gero, amaiera emango zaio itzultzeko prozedurari, Finantzetako zuzendariaren ebazpenaren bitartez.

Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez.

Ebazpenean arauren bat bete gabe utzi dela hartuz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, ebazpena jakinarazten den egunetik hasita bi hilabeteko epean dagozkion diru-kopuruak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra deklaratuko da. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por ésta u otras Administraciones Públicas o entes públicos, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de la subvención. A estos efectos, por la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas se dictará la oportuna resolución de modificación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas, quedando obligadas las entidades beneficiarias a la devolución de los importes percibidos en exceso.

***Artículo 13.***– Incumplimientos y responsabilidades.

En el supuesto que la Entidad beneficiaria de la subvención incurriese en alguno de los supuestos contemplados en el artículo 53.1 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, incumpliese cualquiera de las condiciones establecidas en la presente Orden y demás normas aplicables, así como en la resolución de concesión, el Director de Finanzas, mediante la correspondiente resolución, declarará la pérdida del derecho a la percepción de las cantidades pendientes y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que correspondan desde el momento del pago de la subvención, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, de conformidad con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes, siendo el régimen de responsabilidades el previsto en el artículo 64 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

***Artículo 14.***– Procedimiento de reintegro.

En los supuestos de incumplimiento previstos en el artículo anterior, el procedimiento para el reintegro de las ayudas percibidas será el siguiente:

a) El Director de Finanzas dictará la correspondiente resolución en la que se comunicará a la Entidad beneficiaria el inicio del procedimiento de reintegro y las causas que lo fundamentan, concediéndole un plazo de 15 días para que formule las alegaciones que estime oportunas.

b) Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubieran realizado, se pondrá fin al procedimiento por resolución del Director de Finanzas.

El plazo máximo para resolver el procedimiento de reintegro será de seis meses.

Si la resolución estimase la existencia de incumplimiento, declarará la pérdida del derecho a la percepción de la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades que procedan en un plazo máximo de dos meses desde la notificación de la resolución. Este plazo se considerará como plazo de periodo voluntario.

c) Dirua borondatezko aldian itzultzen ez bada, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ogasun eta Finantza Sailburuordetzari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplikatu beharreko araudian ezartzen denaren arabera.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.b eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

***Bigarrena***.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 12a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

c) La falta de reintegro en periodo voluntario será puesta en conocimiento de la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas del Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco a fin de que se proceda por la vía de apremio, según lo dispuesto en la normativa legal aplicable.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Recursos.

Contra la presente Orden cabe interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Economía y Hacienda en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, conforme a lo establecido en los artículos 10.1.b) y 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

***Segunda***.– Efectos.

La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de marzo de 2010.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

I. ERANSKINA

AURREIKUSPEN SOZIAL OSAGARRIRAKO PRESTAKUNTZA AURRERATURAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERA

(Agindua, 2010eko martxoaren 12koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Aurreikuspen Sozial Osagarrirako prestakuntza aurreraturako laguntzen deialdia arautzen duena).

| | | |
|---|---|---|
| BASE eskatzailearen izena: | IFZ / IFK: | Erakunde-mota: |
| Erakundearen zk.: | Helbidea: | Posta-kodea: |
| Herria: | Lurralde historikoa: | |
| Telefonoa: | Faxa: | Helbide elektronikoa: |
| Presidentea: | Idazkaria: | |
| Ikastaroaren izena: | | |
| Ikastaroa eman duen erakundea: | Ikastaroaren modalitatea (aurrez aurrekoa ala on line) | |
| Ikastaroaren lehenengo eguna: | Ikastaroaren azken eguna: | Ikastaroaren guztizko kostua BASEarentzat: |
| Ikastarora joan diren pertsonak: | | |

*ANEXO I*

*SOLICITUD DE AYUDAS ECONÓMICAS PARA LA FORMACIÓN AVANZADA EN PREVISIÓN SOCIAL COMPLEMENTARIA*

*(Orden de 12 de marzo de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda por la que se regula la convocatoria de ayudas para la formación avanzada en Previsión Social Complementaria).*

| | | |
|---|---|---|
| *Nombre de la EPSV solicitante:* | *NIF/CIF:* | *Tipo de entidad:* |
| *Número entidad:* | *Dirección:* | *Código postal:* |
| *Localidad:* | *Territorio Histórico:* | |
| *Teléfono:* | *Fax:* | *E-mail:* |
| *Presidente/a:* | *Secretario/a:* | |
| *Nombre del curso:* | | |
| *Entidad impartidora del curso:* | *Modalidad del curso (presencial u online)* | |
| *Comienzo curso:* | *Finalización curso:* | *Coste total del curso para la EPSV:* |
| *Personas asistentes al curso:* | | |

Sarrera erregistroa / *Registro entrada*

Administrazioak betetzekoa / *A rellenar por la administración*

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | | |

Espediente zk. / *N.º expediente*

| | |
|---|---|
| ……………………..n ………..(e)ko …………..……ren…………(e)(a)n<br>*En …………………a …..…….de ………………………..de……………* | Izenpea/*Firma*:<br>Izpta./*Fdo*.:……………………………<br>(Inprenta-letraz idatzi izenpetzailearen izena)<br>*(Indique el nombre del firmante con letra de imprenta)* |

ARGIBIDEAK

Eusko Jaurlaritza

Finantza Zuzendaritza

Ekonomia eta Ogasun Saila

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Erantsi beharreko dokumentazioa:

– Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakunde eskatzailearen identifikazioa.

– BASEko Gobernu Batzordearen ziurtagiria, ikastaroa egin duen pertsona kopurua, horien identifikazioa eta BASErekin duten harremana zehaztuz.

– Bertaratu diren lagunek prestakuntza-jardueraren inguruan betetako balorazio-inkesta (2. eranskina).

– Prestakuntza eman duten erakundeen zerrenda.

– Emandako ikastaroaren material didaktikoa.

– Ikastaroa jasotzearen ondorioz eragindako gastuen jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak.

– Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.

– BASE eskatzailearen zinpeko aitorpena, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluaren 5. atalean (Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatu zuena) ezarritako ezein kausaren eraginpean ez dagoela ziurtatzen duena.

– Interesatutako hirugarrenaren datuen altaren fitxa, erakunde eskatzaileak eta haren bankuak izenpetuta eta zigilatuta.

– Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako –eta izaera bereko diren– laguntza eta diru-laguntza publikoak itzultzeko prozedurei nahiz zigor-prozedurei buruz, prozedura horiek oraindik izapidealdian badaude, behintzat.

– Erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak beteta dauzkala egiaztatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiri gaurkotua. Ziurtagiriaren ordez, ziurtagiria eskatu izana adieraz daiteke behar bezala zigilatutako idazki baten bidez, baina idazki horrek eskaera aurkezteko baino ez du balioko.

Zor bat atzeratzea lortzen duen erakundeak ordainketak eguneratuta dauzkala hartuko da, baina agirien bidez egiaztatu beharko du hori guztia.

– Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren edo dagokion erakundearen egiaztagiri gaurkotua, aurreko atalean adierazitakoaren ildotik.

INFORMACIÓN

Gobierno Vasco

Dirección de Finanzas

Departamento de Economía y Hacienda

C/ Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Documentación a adjuntar:

– Identificación de la Entidad de Previsión Social Voluntaria peticionaria.

– Certificado de la Junta de Gobierno de la EPSV donde conste el número de personas que han realizado el curso y su identificación y relación con la EPSV.

– Cumplimentación de la encuesta de valoración de la actividad formativa por parte de las personas asistentes a la misma (anexo 2).

– Relación de las Entidades formadoras.

– Material didáctico del curso impartido.

– Facturas originales o fotocopias compulsadas de los gastos en que se haya incurrido por la recepción del curso.

– Copia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.

– Declaración jurada de la EPSV solicitante de no encontrarse incursa en ninguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

– Ficha de Alta de Datos de Tercero/a Interesado/a firmada y sellada por la Entidad solicitante y por la Entidad bancaria correspondiente.

– Declaración jurada de la Entidad solicitante de los procedimientos de reintegro o sancionadores que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, se hallen aún en tramitación.

– Certificado actualizado de la Hacienda Foral correspondiente que acredite que la Entidad solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias. Únicamente a los efectos de presentación de la solicitud podrá sustituirse por el escrito, debidamente sellado, de haber solicitado la certificación.

Se entenderá en situación regular de pagos la entidad que hubiere obtenido un aplazamiento y lo acredite documentalmente respecto a la deuda aplazada.

– Certificado actualizado de la Tesorería General de la Seguridad Social o de la entidad correspondiente en términos semejantes a lo previsto en el apartado anterior.

– Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, administrazio honi nahiz beste administrazio edo erakunde publiko batzuei xede eta helburu berarako eskatutako beste edozein laguntza zein egoeratan dagoen (eskatuta, emanda nahiz izapideak egiten) jakinarazteko.

– Diru-laguntzen zertarakoa eta aplikazioa ziurtatu beharko da konpromisozko bermeen bidez, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

– Interesgarritzat hartutako beste edozein agiri.

Argibideak

Finantza Zuzendaritza

II. ERANSKINA

IKASTAROAN PARTE HARTUKO DUEN PERTSONAK ERANTZUN BEHARREKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN BALORAZIO-INKESTA

1.– Ikastaroaren helburuen arabera, balora ezazu edukia eta jasotako prestakuntza, egoki iritzitako aukeran X bat jarriz:

a) Prestakuntza-ekintzaren ebaluazioa.

– Jasotako prestakuntza erabilgarria al da BASEan zure eginkizunak betetzeko?

☐ Erabat erabilgarria

☐ Oso erabilgarria

☐ Nahiko erabilgarria

☐ Ez oso erabilgarria

☐ Ez da erabilgarria

– Jasotako prestakuntzarekin eginkizunak betetzean kalitatea hobetuko duzula uste al duzu?

☐ Erabat hobetuko da

☐ Asko hobetuko da

☐ Nahiko hobetuko da

☐ Gutxi hobetuko da

☐ Ez da hobetuko

– Declaración jurada de la entidad solicitante en la que se haga constar la situación en que se encuentre (solicitada, concedida o en trámite), cualquier otra ayuda que para el mismo objeto y finalidad se haya solicitado a ésta u otras Administraciones Públicas o entes Públicos.

– Garantizar el destino y aplicación de las ayudas mediante garantías relacionales, conforme a lo previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.

– Cuantos otros documentos pudieran considerarse de interés.

Información

Dirección de Finanzas

ANEXO II

ENCUESTA DE VALORACIÓN DE LA ACTIVIDAD FORMATIVA A CONTESTAR POR LA PERSONA PARTICIPANTE EN EL CURSO

1.– De acuerdo con los objetos del curso, valore su contenido y formación recibida, marcando con una X la opción que considere pertinente.

a) Evaluación de la acción formativa.

– La formación recibida es útil para el desempeño de sus funciones en la EPSV.

☐ Totalmente

☐ Mucho

☐ Suficiente

☐ Poco

☐ Nada

– Cree que va a mejorar la calidad en el desempeño de sus funciones con la formación recibida.

☐ Totalmente

☐ Mucho

☐ Suficiente

☐ Poco

☐ Nada

– Ikastaroaren iraupena egokia izan al da emandako edukiak kontuan hartuta?

☐ Erabat egokia

☐ Oso egokia

☐ Nahiko egokia

☐ Ez oso egokia

☐ Ez da egokia izan

– Zenbateraino bete dira zuk ikastaroari dagokionez zenituen helburuak?

☐ Erabat bete dira

☐ Asko bete dira

☐ Nahiko bete dira

☐ Gutxi bete dira

☐ Ez dira bete

– Ikastaroaren antolaketa egokia izan al da?

☐ Erabat egokia

☐ Oso egokia

☐ Nahiko egokia

☐ Ez oso egokia

☐ Ez da egokia izan

– Emandako material didaktikoa egokia al da?

☐ Erabat egokia

☐ Oso egokia

☐ Nahiko egokia

☐ Ez oso egokia

☐ Ez da egokia izan

– Ordutegia egokia izan al da?

☐ Erabat egokia

☐ Oso egokia

☐ Nahiko egokia

☐ Ez oso egokia

☐ Ez da egokia izan

b) Prestatzaileari buruzko ebaluazioa.

– Edukiak modu erakargarrian eta argi aurkeztu al ditu?

☐ Erabat argi eta erakargarri

☐ Oso argi eta erakargarri

☐ Nahiko argi eta erakargarri

☐ Ez oso argi eta erakargarri

☐ Ez

– La duración del curso ha sido adecuada a los contenidos impartidos.

☐ Totalmente

☐ Mucho

☐ Suficiente

☐ Poco

☐ Nada

– En qué medida se han cumplido los objetivos que Ud. Tenía respecto al curso.

☐ Totalmente

☐ Mucho

☐ Suficiente

☐ Poco

☐ Nada

– La organización del curso ha sido correcta.

☐ Totalmente

☐ Mucho

☐ Suficiente

☐ Poco

☐ Nada

– El material didáctico entregado es adecuado.

☐ Totalmente.

☐ Mucho

☐ Suficiente

☐ Poco

☐ Nada

– El horario ha sido adecuado.

☐ Totalmente

☐ Mucho

☐ Suficiente

☐ Poco

☐ Nada

b) Evaluación del/de la formador/a.

– Ha presentado los contenidos de forma amena y clara.

☐ Totalmente

☐ Mucho

☐ Suficiente

☐ Poco

☐ Nada

– Parte hartzea sustatu al du?

☐ Erabat

☐ Asko

☐ Nahiko

☐ Gutxi

☐ Ezer ez

– Zure jakintza-mailara egokitu al da?

☐ Erabat

☐ Asko

☐ Nahiko

☐ Gutxi

☐ Ezer ez

– Ha fomentado su participación.

☐ Totalmente

☐ Mucho

☐ Suficiente

☐ Poco

☐ Nada

– Se ha adaptado a su nivel de conocimientos.

☐ Totalmente

☐ Mucho

☐ Suficiente

☐ Poco

☐ Nada